

Allende dela eta

Azkenik irakurri dudak ZERUKO ARGIA-k, irailaren 23-koak, leku ugari opa die, bide zen bezala, Chileko gertakari negargarri. Gertakari horiek, izan ere, hurkoak ditugu, hurbilekoak, zenbait mila kilometro gora-behera: ez ote zuen, bada, Allende berak, besteak beste, bere euskal etorkia aitortu? Eta «test» moduan erabil ditzakegu, hurbileko ditugulako hain zuzen, geure artean ere. Ea egunen batean, ordu ere badugu eta, nor nor den eta non dagoen ikusten dugun agerian.

Gogoko izan ditut zenbait gauza irakurri ditudanetarik; beste zenbait, berriz, ez hain gogoko. Irakurle naizen aldeetik dudak eskubideaz baliatuz, beraz, neure iritzia azaldu nahi nuke zenbait punturi buruz, zuzendaritzaren baimenarekin. Hona zertaz:

1. Azpeitia jaunak, Chile dela eta, Txekoslovakia gertakariak oroterrazten dizkigu, elkarren pareko direlakoan edo. Badute, haatik, ezberdintasun nabarmenik, eta ez dut bat baizik aipatuko: Chile sutu duten tankeak ez ziren ez arrotzak ez atzerrikoak, ez dira inondik sartu Chilen. Badugu gozago zaharrago garenok —hots, «klasikoko»— hangoekin antz eta eite gehiago duen gertakariak. Giza kondaira ez baita hasi 1970ean, ez 1960an, ezta 1950ean ere.

2. Plama horretan bertan hau irakur daiteke: «Azken boladako huelgak kalte ikaragarria egin diote Chileko ekonomiarari». Baina, mundu zabalean aski hedaturik dabilen ustearen arabera, ez da Chilen, esateko moduan, huelgarik, grebarik edo lan uztirik izan: han batipat gertatu denari «lock-outs» deritza, han eta hemen. Bakuninek beti amets izan zuena, eta langileek lotzeko gauza izan ez direna, erdietsi dute nagusi-uztagabek: komunikabideak oro moztuz, bizi iturriak agortu Talcaitxiki hasi eta Punta Arenas-eraino.

3. Ez du inork, ene ustez, «nahasmendu hori» (saltsa hemen, huelga han) aitakiztat hartu, Iraola jaunak idazten duenez. Aitzitik, nahasmendu hori, eta atxekia nahasmendu-arekin batean, zuzen-ekertzaileek bere sortu dute, guztiok dakigun bidez, gero oker-zuzentzaile arda daitezten. Bestela esan, ordenazaleek sortu dute, eta ia esku hutsik sortu gainera, desordenua Chilen.

4. Izenik (eta marrazkirik) ez daraman 5gn plamako berri batean irakur daiteke nola 1970-72 bitartean lur jotzeraino jatsia zen kobreaken prezioa, «azken boladako huelgak»

zirela medio, dirudienez. Ekonomiaz deus ez dakidan arren, arazoizko iruditzen zait pentsatzea prezioek, kobre gutiago ateratzen baldin bazen, goraka abiatu behar zutela, beheraka hasi beharrean. Hor ageri da dudarik gabe, bestetan baino gehiago, merkatu eragile diren Ipar-amerikanoen eskua.

5. Zalantza bizitan utzi nau Mandiola jaunak diotenak: «Kristau demokratik, berriz, azkenera arte ez dira bere lekuan jarri». Ez baitiot igeritzen zein izan daitekeen leku hori, astokalea ala urdandegia. Beste norbaiten laguntza behar izaten baita bakunindarrei beti falta izan zitzaizkien azken bultzada emateko. Eta astoaren egitea da, zerriarena egin ondano, uste izatea azken bultzadako horiek prest daudela beregana dutena besteri, Frej eta bere adiskideei esate baterako, eskualdeetako.

Badakit ez dutela, Jainkoari eskerrak, kristau demokratik guztiak horrela jokatu Chilen: onenek eta argienek ez, behar bada; bai, ordea, gehienek eta eragikorrenek. Eta horiek izan dira, ez inongo CIA-ren eraginak, han demokratia desegin eta Allende —beste asko lagun dituela— heriotzera eramandakoa. Eta hori Allende eraberritzaile bezala agertzen zelarik, ez iraultzaile gisa. Duda egingo nuke, gainera, bihotzaren zokorik izkutuenean ere zinetan nahi ote zuen zenbait erresumatan nagusitu den irudiko iraultzarik.

Ez dut uste pentsakizun alferria izan daitekeenik guretzat Chileko. Kristau ugari omen dugu geure artean; demokratik ugari ere bai, diotenez. Ez da premiako, baina kristau dena eta demokratik dena, kristau-demokratik izan daiteke, gutienek. Eta galdera hau da, han eta hemen: kristautasuna eta demokratik, bandera eder horiek, ez ote dabilaztegu klase interesen estalki eta zerbitzuko? Treveristarrak ez baitzuten klase interesak asmatu eta irudimenetik atera: bere —eta gure— inguruan aurkitu zituen.

Zenbait, inoiz, klase interes horiek mendera ditzake eta beste xede batzuen —ene ustez, goragoko izan daitezkeen xede batzuen— mirabe bihurtu: diodanaren frogak irispidean ditugu, gehiegizko bilaketetan hasi gabe. Guk ere —zuk eta nik, alegia— egingo ote genuke beste horrenbeste? Zeurorrek nahi duzuna hauta dezakezu. Nik, banderarik behar banu, nahiago nuke Allende hilarena eskuetan Frej biziarena baino.

K. MITXELENA

AOSTA GERO ETA ITALIARRAGO

J. San Martin-ek Donibaneko Uda-Unibertsitatean Aosta-ko hizkuntz-arazoaz zenbait berri eman ondoren, hona hemen, ia batera, Philippe Decraene albistaria aski xeheki eta bide beretik («La Francophonie Valdotaïne en péril», Le Monde, 1973-IX-17) berri jakingarriak zabaltzen ari. Ez da kezka hori lehenengo aldiz agertzen «Le Monde»-n: orain dela best urte, bi artikulu bikain eskaini zituen Michel Leiris-ek, ez Decraene-rena baino baikorrago.

Decraenek ematen dituen xehetasunek garbi adierazten dutenez, Aosta-ren frantsesatasuna hiltzorian dago; eta ondoko urteetan aldakuntza sakonik gerta ez badadi, Italiako atal huts bihurtuko da Aosta; eta bertako leku-izenak baizik ez da geldituko (Etroubles, St. Pierre, Entrèves, eta abar) gaur arteko haren frantses jatorriaren oroikarritzat.

Aosta-haran hau Fraitntzia-Italiako mugan dago, Alpe-etan, Italiako Ipar-Mendebaldean alegia. Ikuste guztiak ahobatez diotenez, ezinago bazter ederra; eta bertan ehun bat mila «valdotain» bizi dira 3.260 kilometro koadroaren barrera. Aostatarrak jatorriz eta hizkuntzaz frantsesak izanagatik ere, ez dute beren burua Fraitntziako haurritzetat jotzen (Savoie-ko separatistek jotzen ez duten bezalatsu); eta denek omen diote, eskuinetik ezkereraino: «Valdotains d'abord», Aostatarrak aurrenik. Hortik aurrera, ordea, eta politikaren mailan, Aostatarrak zeharo daude zatiturik eta anitz taldeetan taldekatutik.

Teorian bederen, eta beherago azaltzen den arrazoiarengatik, Autonomian bizi da Aosta Italiako Errepublikaren barruan; eta gaur, esate baterako, Cesar Dujany dute gobernu-buru. Zertan mamitu da, ordea, gudu-ondoko Italiak legetan aitortu zuen «autonomia» hori? P. Decraenek azaltzen duenez, ezer gutxitan.

Eskola italiaraz egiten da Aostako eskualde osoan; eta, Italia guztiaren bezalaxe, frantsesa ez da bigarren hizkuntza gisa baizik erakosten.

Meatzak eta lantegiak direla-ta, bestalde, italiar asko etorri da Aostara, lan bila; eta gaur horrela jendeketaren arabera hau bihurtu da: % 45 italiar, % 55 aostatar. Elkar uertu beharra dela-ta, frantsesa etxeko hizkera soil bihurtu da; batez ere lantegiak dauden herrietan. Eta gehien-gehienetan zaharrak bakarrik dira frantses hitz egiteko gauza. (Susa-ko partean, ondoko haranean alegia, fenomeno berbera gertatu zen XIX. mende-bukieran, eta gaur italiartuta dago arrunt).

Aostako kaseta guztiak italiarrik dira, eta italiaraz idatziak. Nahiz Chamonix-tik (Fraitntzia) Courmayeur-a (Italia) hamabi kilometro baizik ez izan, frantses aldizkariak Turin-en barrera iristen dira Aostara bi egun beranduago; eta, jakina, ez dira batera saltzen.

Zinemaren mailan joera berbera ageri: «Hara-nean ematen diren filma frantses guztiak —dio Decraenek— batera berezizuztarik gabe, italiarazko izkribuz itzuliak dira».

Aosta guztiaren, bestalde, ez dago frantseseko liburu-dendarik batera: liburu guztiak italiaraz.

Are gogorragorik ere bada: frantses telebista ikustea debekaturik dago: «Le fait de capter sur son récepteur, grâce à une installation de fortune, les émissions de la TV française, constitue un délit passible d'une forte amende, voire d'emprisonnement» (!). Alegia, frantses telebista ikusteagatik, multa gaitza etor daitekeela, baita gartzela ere... Aur-

tengo Maiatzean, bain zuzen, arazo zentzugabe hori konpondu nahirik, eta Aostako gobernu «autonomoak» berak erabakirik, frantses telebista Aostan ofizialki hartu ahal izateko baimena lortu, eta beharrezko tresneria jartzeko, 10 milioi lira eskatu zituen Erromara. Italiarren erantzuna ez zen luzatu: Aostako Prefetoak bere ukoa eman zuen («veto» dio Decraenek) bertako gobernu «autonomoaren» aurka... Eta kito. Zer egingo ehun mila lagun «gobernetu» gizarajoak?

Ez da horrelakorik lehenengo aldiz gertatzen: Mussolini-ren garaian, gartzela arriskatzen zuten frantses mintzo ziren Aosta-tarrak; eta leku-izenak berak beharrezko italtasunaren arabera aldarazi zituen Duce delakoak: La Thuile Porta-Littoria bihurtu zen, Le Breuil Cervinia, eta Saint Vincent San-Vicenzo. Horren ondorioz, eta oroitzen txarrak kentzeko, Autonomia eman zuen Erromak 1948-an. Baina berehala ahaztu zen tolerantzia hartaz.

Liturjia berria dela-ta, ia leku guztietan, eta Aosta Katedralean ere bai, jakina, latineratik... italiarera pasa dira. Eta Vaticanoak izendatu duen azken Apezpikuak ez daki frantsesez.

Val d'Aosta hau, gorago ere esan dugunez, txiki ederra izanik, turistak ugari dira; eta ia denak italiarrik (200.000 kanpotar Aostan Abuztuan). Bezeroak beti egin baitu, italiaraz jakitea beharrezkoa da ostantutan eta bazkaldegietan; baina frantsesez... zertarako? «Après une courte renaissance —dio Decraenek— esquissée en 1945, la langue et la culture françaises se trouvent à nouveau sévèrement en péril!».

Jakina: Chamonix-en (Fraitntziako alderdian, alegia), handik hamar kilometrotara bakarrik, ez da horrelakorik ezer gertatzen; eta frantses hizkuntza bakarra da, indartsua, eta errotik itsatsia. Savoie-n italiararen aztarnarik ez da ageri.

«Fraitntziak ez gaitu laguntzen» esaten dute etsiturik Aostatarrak batzuek, gutxik; gehienak ez baitira oharitu ere egiten Aostan gertatzen denaz. Eta oharitzen direlarik ere, istilu noriek behin eta berrakoz bazterteko erabaki baitute. «Politique de non ingérence dans les problèmes internes des autres Etats»...

Eta errealmorik ez zaie falta; ezen Parisen ez baitu Aostako arazo hau behin ere aipatzen. Nola aipa? Alsaziako Aostakoaren simetrikoa baita. Eta Aosta Fraitntzia bada, zergatik ez Walonia eta Frisburgo? Aosta Fraitntzia baldin bada, Alsazia Alemaniartzat jo daiteke.

Erresuma guztiak, horrela, zuzentasunaren kontrako bekatuak izkutatuz beharrez, elkarren laguntzaile ermo gertatzen dira. «Hor konpon!» pentsatzen dute. Eta isildu egiten dira. Eta isilduko.

Aosta, horrela, Mussolini urrun gelditu delarik ere, italiarrentzat abiatua da guztiak. «Ethnie Valdotaïne» delakoa, bere frantses izana galtzen ari da isiltasunean, eta begi guztien aurrean. Zergatik? Ez, otoi, edozer erantzun. Frantsesa batua da, Aostan ez dago ikastola burgesik, eta Erromako goberna ez da fazista orain dela 28 urte. Hortaz, zergatik italiara hemen nagusitzen ari, eta mendi berberetan eta hurrengo mendarteetan frantsesa?

Ez dut nik erantzungo.

LARRESORO

GIPUZKUAREN ALDE LANA GOGOTSU EGIN

Gure elburua, Gipuzkuaren alde gogotsu lan egitea da. Gure asmo au, aurrera daramazkigun gure gizarte ekintzak ederki asko egiztatzen dute:

ikusi bestela ikasle, azterketa lan, aur eta osasun bearretarako, eta zartzarorako laguntzak.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

